

JAUZIRAKO



**Ezagutzaren unibertsalizazioari
buruzko bigarren jardunaldiak**

**Azaroak 10 eta 11
San Prudencio Fundazioa, Gasteiz**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

JAUZIRAKO PREST.

Ezagutzaren Unibertsalizazioari
buruzko bigarren jardunaldiak

Azaroaren 10 eta 11n,
Gasteizko San Prudencio Fundazioan.

ANTOLATZAILEAK:



EUSKALGINTZAREN
KONTSEILUA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IREKIERA-EKITALDIA

09:15-09:30

Paul Bilbao Sarria
Euskalgintzaren Kontseilua

Miren Dobaran Urrutia
Eusko Jaurlaritza

SARRERA-HITZALDIA

09:30-10:30

Flandriako (eta Bruselako)
hezkuntza-eredua hizkuntza
gutxitua indartzeko

An De Moor
Odisée Unibertsitatea

SARRERA-HITZALDIA

10:30-11:30

Zein dira Kataluniako sistemaren
indarguneak eta ahulguneak?
Zer dugu ikasteko?

Avel·lí Flors-Mas
Universitat de Barcelona



11:30-12:00 KAFE-ETENA

HEZKUNTZA ARAUTUA:
HIZKUNTZA-PROIEKTUAK

12:00-12:45

Zer izan behar dugu buruan
hizkuntza-proiektuaz ari garenean?

Karmele Pérez Lizarralde
MU-HUHEZIKo irakaslea

12:45-13:30

Ikasle euskaldun eleaniztunak
helburu, nola garatu dira
hizkuntza-proiektuak?

Julen Etxeberria Mendiola
Aitor ikastola
Donostia

Zefe Ziarrusta Artabe
Ugarana eskola
Dima

Fertxu Izquierdo Jiménez
Iparralde DBHI
Iruñea

Bideratzailea:
Arantxa Urbe Irazusta
Hik Hasiko kidea

TRANSMISIOA-SOZIALIZAZIOA (I)

15:30-16:30

Errealitate zehatzei
erantzuteko eredu bereziak

Pili Anuncibay Campandegui
Belaskoenea eskola
Irun

Rober Okariz Zufiaurre
Assa ikastola
Lapuebla de Labarca

Eñaut Arriaran Villar
Mariturri eskola
Gasteiz

16:30-17:00

Zein ekarpen egiten die
aisialdi antolatuetan
hizkuntzaren gaitasunari eta
jarrerari?

Maite Asensio Iparragirre
HEZTEN aisialdi euskaltzalea

17:00-17:45

Haur eta gazteen egonaldiak:
tarte baterako arnasguneak

Maddi Bordagaray
UDA LEKU

Izar Agirretxe Iradi
IKUSIKA

Maialen Cadavid Etxebarria
EUSKAL UDALEKUAK

TRANSMISIOA-SOZIALIZAZIOA (II)

09:30-10:30

Ele-meleka: Bigarren Hezkuntzako nerabeen hizkuntza-sozializazioan laguntzeko proiektua

**Iñaki Eizmendi Arsuaga
EBETE**

**Jon Pello Artetxe Mendizabal
TTAKUN**

10:30-11:30

Udaletan familia bidezko euskararen transmisio-politika sistematizatuak bultzatzeko proiektua

**Natxo Mosteiro Robredo
Hizkuntza Plangintza arduraduna
Herri administrazioetan hizkuntza normalizatzeko zuzendaritza
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza**

 11:30-12:00 KAFE-ETENA

HELDUEN EUSKALDUNTZEA

12:00-12:45

Zer egin ezagutzaren unibertsalizazioa helduen esparruan sustatzeko?

**Aize Otaño Lizarralde
AEK**

**Joxerra Olano Etxabe
IKA**

12:45-13:30

INGURA Euskara online ikasteko ingurune digitala

**Eskarne Lopetegi Zalakain
Metodologia eta edukien arloa
HABE**

ITXIERA

13:30-13:45

Jardunaldien itxiera

Azaroak 10
osteguna

7 09:30
10:30

SARRERA HITZALDIA

Flandriako (eta Bruselako) hezkuntza-eredua hizkuntza gutxitua indartzeko

Gaur egun, gutxitan begiratzen diogu Flandriari hizkuntza gutxituen normalizazio-prozesuei dagokienez, ez bada Bruselan gertatzen denari jarraipena egiteko. Dena den, esan dezakegu nederlanderaren normalizazio-prozesua nahiko berria izan dela, duela hamarkada batzuk ekin baitzi tzaion lurraldetasun-printzipioa aplikatzeari. Eta, prozesu horretan, ezagu tzaren unibertsalizazioa erdiesteko hezkuntzak bete izan duen funtzioa oinarritzkoa izan da. An De Moor dokto-reak prozesu hori partekatuko du hitzaldi nagusian, hain zuzen ere, nola lortu zuen hezkun tza-sistemak hiztun berriak sortzea.

Bestalde, Bruselako hezkuntzaren egoerari buruzko, eta, ondorioz hizkuntzari buruzko, aurkezpena ere egingo du. Brusela hiri eleaniztuna izan arren, bi komunitateek (nederlandofonoa eta frankofonoa) zeinek bere bideari jarraitzen dio hezkuntza-sisteman. Are gehiago, bada hezkuntza ministro bat Flandrian, beste bat Bruselan (eskualde horretako hezkuntzan eskumena besterik ez duena), beste bat komunitate germanofoarentzat eta laugarren bat Valonian. Halere, azken urteotan ikusi da gero eta guraso gehiagok jotzen dutela ikastetxe flandrietara. Zergatik gertatzen da hori? Zein dira ondorioak? Horri erantzungo dio hitzaldiak.



An De Moor
Odisée Unibertsitatea

De Moor irakasleak masterra du germaniar hizkuntzetan (Ganteko Unibertsitatea). Hamabi urtez nederlanderaren eta ingeles-irakasle izan zen bigarren hezkuntzan. Ondoren, freelance kazetari eta erredaktore jardun zuen. 2000ko hamarkadaren hasieran Flandriako Atzerri Politikako ministroaren kanpo politikako aholkularia eta bozeramailea izan zen.

2008an hezkuntzara itzuli zen. Ordutik, hezkuntza-garapenerako ikertzaile, komunikazio eta internazionalizazio-aholkularia, eta Odiséeko Unibertsitate Eskolako enpresa-komunikazioko irakaslea da. Halaber, Odiséeko Unibertsitate Eskolako eta Bruselako KU Lovainako campuseko fakultate guztietako programen koordinatzailea da 2009tik.

Hizkuntza-politikako aholkularia ere bada Flandriako Gobernuako Hezkuntza eta Trebakuntza Sailean. Irakurketa integraleko ekintza plan nazional batean parte hartu zuen, eta Flandriako Hezkuntza ministroak agindutako Hezkuntza Hobearen Batzordearen aholkularitza-txostenean parte hartu zuen.

Bestelakoetan, Bruselako Flemish-Dutch Kultur Etxeko Zuzendaritza Batzordeko kidea da eta Flemings in the World Fundazioko presidenteordea. 2002tik Beweging Vlaanderen-Europa irabazi-asmorik gabeko erakundeko burua da, eta 2005etik irabazi asmorik gabeko I I-Daagse Vlaanderen Feest erakundeko burua.

Hainbat sari jaso ditu, hala nola, Frans Drijversprijs, Orde van den Gulden Draak eta Flandriako Akademikoen Elkarte-VVA-ren Academic of the year 2016. Halaber, 2018an Lofprijis der Nederlandse taal saria jaso zuen Bruselako komunitate nederlanderaren eskutik. Azkenik, 2020kan, Flandriako Komunitatearen Ohorezko Domina jaso zuen Flandriako Gobernuaren eskutik.

SARRERA HITZALDIA

Zein dira Kataluniako sistemaren indarguneak eta ahulguneak? Zer dugu ikasteko?

Azaroak 10
osteguna

10:30
11:30

Ohikoa dugu guretik Kataluniako ereduari begiratzea. Lehen jardunaldietan ere, bertako aditua izan genuen hezkuntzak ezagutzaren unibertsalizazioari ekarpena egiteko gako-ezaugarriak zein ziren partekatzen.

Oraingoan ikuspegia zabalduko dugu eta hezkuntza-sistema modu zabalago batean ulertuko dugu. Kataluniako hezkuntza-sistemak bide oso interesgarria egin du, baina azken boladan hainbat kezka plazaratu dira. Nolabaiteko erlaxazioaz hitz egiten da, eta horrek eragina du, besteak beste, gazteen erabileran. Horrela, ohartuak dira gero eta garrantzitsuagoa dela erabilera-espazioak sortzea, eta ikastetxeetatik kanpoko eremuetan indarra egitea. Elementu horiek oinarri hartuko ditu Avel·lí Flors-Mas irakasleak hausnarketa partekatzeko.



Avel·lí Flors-Mas
Universitat de Barcelona

Soziolinguista, Filologia Katalanean lizentziaduna (UB, 2010) eta katalanezko hizkuntza eta literaturako ikasketa aurreratuetan doktorea (UB, 2017), nerabe katalanen eta valentziarren arteko hizkuntza-erabilerei eta gizarte-identitatei buruzko tesiarekin. Ikertzailea eta CUSC-Universitat de Barcelonako Soziolinguistika eta Komunikazioko Ikerketa Zentroko zuzendaritza kontseiluko kidea. Unibertsitate bereko Filologia Katalana eta Hizkuntzalaritza Orokorra Saileko irakasle irakurlea (Soziolinguistika, Ekologia eta Hizkuntza Plangintzako irakasgaiak eta Hizkuntzalaritza Graduak Hizkuntzalaritzarako Sarrera) eta Universitat Oberta Catalun-

yako Arte eta Giza Ikasketetako irakasle laguntzailea.

Bere ikerketa-ildoak dira gazteen eta immigrazioaren soziolinguistika, demolinguistika eta hezkuntza- zein familia-arloko hizkuntza-politika. Alor horietan, hainbat aldizkaritan artikuluak argitaratu ditu, hala nola, *Treballs de Sociolingüística Catalana*, *Revista de Llengua i Dret*, *Language Problems and Language Planning* edo *Journal of Iberian and Latin American Research*. *Journal of Language and Law*. *Llengua i Dret* aldizkariko zuzendaria da, eta 2022tik Societat Catalana de Sociolingüística (SoCS) delakoaren idazkaria, l'Institut d'Estudis Catalans erakundearen filiala.

Azaroak 10
osteguna

12:00
12:45

HEZKUNTZA ARAUTUA: HIZKUNTZA-PROIEKTUAK

*Zer izan behar dugu buruan
hizkuntza-proiektuaz ari garenean?*

Zalantzarik gabe egoera konplexua bizi du ikastetxeak gaur egun hizkuntzen eremuan, are gehiago, hizkuntza minorizatu bat erdigunean kokatzen dugunean. Gurean helburu nagusia ikasleak euskaldun eleaniztun bihurtzea da, eta horri begira ikastetxearen hizkuntza-ereduaz gain, hizkuntza-proiektuak ere garrantzia hartu behar du. Izan ere, ikastetxe orok du hizkuntza-proiektua, zenbatean esplizitua eta beste batzuetan inplizitua. Ondorioz, helburua litzateke erabaki konzienteak eta ausartak sustatzea, hortik eratorriko diren hizkuntza-politikak eta hizkuntzen irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak izan daitezen berritzaileak eta lagun dezaten ikastetxearen proiektua ordenatzen, indartzen, hobetzen edota eraldatzen.

Hainbat esparru jaso beharko ditu, beraz, hizkuntza-proiektuak, tartean, hizkuntza-trataeraren inguruan egingo dituzten hautu guztiak. Halaber, bertan bilduko ditu ikastetxeak hizkuntzekiko lortu nahi diren helburuak (gurean ikasle euskaldun eleaniztunak), landu nahi dituen konpetentziak, erabiliko duen metodologia eta hizkuntzen ikuspegia, bai eta nola ebaluatuko dituen neurriak eta erabiliko dituen tresnak eta bitartekoak. Horrekin batera, hizkuntza-proiektuak integrala izan beharko du, eta ondorioz, hezkuntza formalean ez ezik, ez formalean ere eragin beharko du.

Hari-mutur horiek guztiak josiko ditu hizkuntza-proiektuetan eskarmentu handia duen MU-HUHEZiako irakasle Karmele Pérez Lizarralde irakasleak. Horrela, hizkuntza-proiektuek ikastetxea eraldatzeko eskaintzen dituen aukerak ez ezik, belaunaldi berri euskaldun eleaniztunak lortzeko kontuan hartu behar dituen elementuak ere partekatuko ditu hitzaldian.



Karmele Pérez Lizarralde
MU-HUHEZiako irakaslea

Hasierako prestakuntzan Euskal Filologia ikasitakoa eta doktorea Hezkuntzako berrikuntzan eta esku-hartzean. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZI) irakasle eta ikertzailea da, MIKER iker-taldeko kide eta Etengabeko Prestakuntzako zuzendaria. Bere irakaskuntza eta ikerketa

gaiak hizkuntzen eta literaturaren didaktikaren eremuan garatu dira, eta azken urteetan hainbat formazio eta aholkularitza proiektutan dihardu lanean, bereziki gai hauetan: hizkuntza proiektuen diseinua eta garapena, euskararen ikaskuntza eta irakaskuntza estrategiak eta ahozko hizkuntzaren lanketa eta erabilera.

HEZKUNTZA ARAUTUA: HIZKUNTZA-PROIEKTUAK

***Ikasle euskaldun eleaniztunak helburu,
nola garatu hizkuntza-proiektuak?***

Azaroak 10
osteguna

12:45
13:30

Testuinguru desberdinetan kokatutako hiru ikastetxek haien hizkuntza-proiektuak nola garatu dituzten partekatuko dute honako mahai-inguru honetan. Aitor eta Ugarana ikastetxeek Euskalgintzaren Kontseiluak hezkuntza sektoreko eragile nagusiekin jorratutako Ikasle Euskaldun Eleaniztunak oinarri hartuta garatu zituzten hizkuntza-proiektuak. Horrela, eskolan euskara ikastetik eta euskaraz ikastetik, eskola, bere osotasunean, euskaraz bizitzera pasatu beharra, eta eskolak ikasle euskaldunak hezteaz gainera, egungo munduan eragiteko gai izango diren euskaldun eleaniztunak hezi beharra izan zuten helburu. Iruñeko Sanduzelai auzoko Iparralde ikastetxea, aldiz, euskara ofiziala ez den eremuan (eta ingurune bereziki erdaldu-nean) dago kokatuta, eta hizkuntza-proiektua osatzeko prozedura oso interesgarria abian jarri zuen, ikasleen eta familien errealitate linguistikoa aztertuz, eta irakasleen eremu pedagogikoari buruzko hausnarketa eginez. Ikasle eleaniztunek sortzeko eta euskara komunikazio-hizkuntza gisa erabil dezaten bultzatzeko, hezkuntza eraldatzea helburutzat hartuta.



Julen Etxeberria Mendiola

***Aitor Ikastola
Donostia***



Fertxu Izquierdo Jiménez

***Iparralde DBHI
Iruñea***



Zefe Ziarrusta Artabe

***Ugarana Eskola
Dima***



Arantxa Urbe Irazusta

Hik Hasiko kidea

Azaroak 10
osteguna



15:30
16:30

HEZKUNTZA ARAUTUA: HIZKUNTZA-PROIEKTUAK

***Errealitate zehatzei erantzuteko
eredu bereziak***

Honako elkarrizketa honetan hiru ikastetxetako esperientziak jasoko ditugu. Ikastetxe horiek errealitate zehatzak bizi dituzte, dela ikastetxe barruko aniztasunarengatik dela ikastetxea kokatuta dagoen ingurune soziolinguistikoarengatik. Horrek eragin du ikasleen euskalduntzearen begirako programa bereziak abian jartzea.



Pili Anuncibay Campandegui

***Belaskoeneako eskola
Irun***



Rober Okariz Zufiaurre

***Assa ikastola
Lapuebla de Labarca***



Eñaut Arriaran Villar

***Mariturri eskola
Gasteiz***

TRANSMISIOA-SOZIALIZAZIOA

Zein ekarpen egiten die aisialdi antolatuetak hizkuntzaren gaitasunari eta jarrerari?

Azaroak 10
osteguna

16:30
17:00

Ezagutzaren Unibertsalizazioaren lehen jardunaldietako ondorioa izan zen gero eta kontzientzia handiagoa dagoela aisialdiak hizkuntza gutxituko hiztunen gaitasunean eta erabileran duen loturarekin. Lotura horren isla da, esaterako, aisialdian jarduten duten zenbait eragilek aspaldi txertatua dutela hizkuntzaren zeharlerroa, bai hezitzaileei begirako formazioan, bai eta antolatzen dituzten jardueretan ere.

Honako hitzartze honek aisialdiak hizkuntzaren normalizazio-prozesuari egiten dion ekarpena izango du hizpide nagusi, marko teorikoaz harago ekarpen hori egiteko garatzen diren proiektuak eta dinamikak azalduz.



Maite Asensio Iparragirre
HEZTENeko koordinatzaile orokorra

Maite Asensio Iparragirrek Haur Hezkuntzako irakasle gradua du. Horrekin batera, aisialdi begirale- zein zuzendari-tituluak ere baditu. 2003tik aurrera ari da Urtxintxa Eskolan. Hasiera batean hezi-

tzaile lanetan jardun zuen, 2005etik aurrera hizkuntza-normalizazioan eta 2019tik aurrera Urtxintxako (gaur egun, HEZTEN) koordinatzaile orokorra da. Aisialdiarekin lotura eta eskarmentu handia du.

TRANSMISIOA-SOZIALIZAZIOA

Haur eta gazteen egonaldiak: tarte baterako arnasguneak

Azaroak 10
osteguna

17:00
17:45

Egoera gutxituan dagoen hizkuntza baten normalizazio-prozesuan arnasguneek funtzio garrantzitsua betetzen dute, besteak beste, euskaraz normaltasunez bizi daitekeela erakusten dutelako. Mahai-inguru honetan Euskal Herriko luze zabalean garatzen diren mota desberdineko bi arnasgune soziofuntzionalen adibideak izango ditugu, zeintzuen bidez, euskara haien gustuko jarduerekin lotzeaz gain, ingurune erdaldunetan euskararen erabilera normalizatua posible dela ikusarazten laguntzen duten.



Maddi Bordagaray
UDA LEKU



Izar Agirretxe Iradi
IKUSIKA



Maialen Cadavid Etxebarria
EUSKAL UDALEKUAK

Azaroak 11
ostirala

7 09:30
10:30

TRANSMISIOA-SOZIALIZAZIOA

Ele-meleka: Bigarren Hezkuntzako nerabeen hizkuntza-sozializazioan laguntzeko proiektua

Nerabeen euskararen erabilerarekin arduratuta daude hainbat eragile eta erakunde. Hizkuntza-ohiturak fenomeno konplexua dira: gizartean ematen diren hainbat egoera eta faktorek eragiten dute ohitura horietan.

Nerabeak sozializazio prozesu batean daude, eta horren barruan hizkuntza-sozializazio bat ere ematen da. Hau da: sozializazio horretan hizkuntzak behar dituzte, eta hizkuntzak noiz, nola eta norekin erabili ere barneratzen dute.

Hizkuntza-sozializazio horren ondorioz nerabeek euskararekiko harreman ezberdinak garatzen dituzte: euskara barne-barneko hizkuntza moduan bizitzen dutenetatik euskaraz ikasi arren hizkuntza arrotz moduan bizitzen dutenenganaino. Hainbat faktorek eragiten dute prozesu horretan.

Ele-meleka proiektuaren bidez nerabeen hizkuntza-sozializazio prozesuan lagundu nahi da. Horri begira kontuan hartzen dira euskararekin harreman ezberdina duten nerabeekin esku-hartze egokituak egiteko aukera, adinera egokitutako jarduerak eskaintzea, eta abar.

Lasarte-Orian sortutako proiektua da eta herriko ezaugarrietara egokitua. Baina oinarriak eta proposamenak Euskal Herri osora orokortu daitezke, eta baliagarria izan daiteke hainbat eragilerentzat. Erakunde ezberdinen arteko elkarlanaren bidez aurrera eramaten den proiektua da: Oriarte institutua, Lasarte-Oriako Udala eta Ttakun Kultur Elkartea. Hainbat urteetako elkarlana oinarri hartuz eta aurrera begirako apustu sendo moduan garatu da.

Proiektuaren barruan hainbat jarduera txertatu dira: sentsibilizazio saioak, gazte eragileen batzordeak, aisialdiko jarduerak, ahobizi ekimenak, eta abar.

Abiapuntuko nondik norakoak, proiektuaren oinarriak eta jarduera bakoitzarekin lotutako baliabide eta tresna guztiak argitaratu dira eta interesa duen edonoren eskura daude.

Jardunaldietan proiektuaren berri emango da interesa duen edonork horren berri izan dezan eta eskura dituen baliabideak ezagutu ditzan.



Iñaki Eizmendi Arsuaga
EBETE

Gizarte Hezitzailea. Ebete hizkuntza zerbitzuen sortzailea eta kudeatzailea. Ebeteren bidez haur eta nerabeen euskararen erabilera eta hizkuntzarekiko jarrerak indartzeko proiektuetan lanean 2007tik. Besteak beste: irakasleentzat formazio saioak, gurasoentzat hitzaldiak, erabilera sustatzeko baliabideen inguruko argitalpenak, edota hezitzaileentzat formazio saioak.



Jon Pello Artetxe Mendizabal
TTAKUN

Ikasketaz Heziketa Fisikoko irakasle, ofizioz, Ttakun Kultur Elkarteko dinamizatzaile. 2017az geroztik, Lasarte-Orian euskara sustatzeko hainbat programatan koordinazio lanak egiten. Besteak beste: Kuadrillategi, Udaleku Irekiak, Ele-meleka proiektua, Kanpaldiak eta abar. Aurrez, ia hamarkada bat hezitzaile lanetan.

TRANSMISIOA-SOZIALIZAZIOA

Udaletan familia bidezko euskararen transmisio politika sistematizatuak bultzatzeko proiektua

Azaroak 11
ostirala

10:30
11:30

Hizkuntzak iraun dezan eta indarberritu dadin, faktore giltzarria da transmisioa: belaunaldi berrietara transmititzen den bitartean, iraupena ziurtatua du hizkuntza batek. Transmisioa eteten bada, ordea, benetako arriskuan izango du bizi-indarra, hiztunak sortzeko berezko mekanismoa galdurik. Hala da euskararen kasuan ere: normalizazioa lortzeko, ezinbesteko osagaia da familia transmisioa.

Hizkuntza-normalizazioaren esparruan guztiz berritzailea den egitasmoa martxan jarriko da 2022/2023 ikasturtean. Euskararen familia bidezko transmisioa sustatzeko metodologia sistematikoak hobetu, sortu eta pilotatu egingo dira tokian toki, modu esperimentalean eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak koordinatuta.

Ezaugarri ezberdinetako herrietan pilotatu nahi dira proiektuak, horretarako, metodologia-eredu diferenteak eskainiz, eta, gainera, tokian tokiko egoerara egokitzeko aukera emanaz. Eredu horiek diseinatzeko, besteak beste, landa-lan bat bideratu da, tokian toki egon daitezkeen arrakasta-kasuak identifikatu eta aztertzeko.



Natxo Mosteiro Robredo

***Hizkuntza Plangintza arduraduna
Herri administrazioetan hizkuntza
normalizatzeko zuzendaritza
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza***

**Azaroak 11
ostirala**



HELDUEN EUSKALDUNTZEA

***Zer egin ezagutzaren unibertsalizazioa helduen
esparruan sustatzeko?***

Ezagutzaren Unibertsalizazioari buruzko lehen jardunaldietan, Euskalgintzaren Kontseiluko helduen euskalduntzearen sektorea osatzen duten bazkideek konpromisoa hartu zuten hausnarketarik bat garatzeko, hain zuzen ere, helduek euskara ikasteko izan dezaketen arrazoiez. Finean, helduen euskalduntzearen esparruan, normalean, bi elementu izaten ditugu eskuartean, batetik, herritarrak euskara ikasteagatik ordaindu behar ez izatea, eta, bestetik, herritarrak bere burua euskalduntzeko erabakia hartzea. Hau da, lehena betetzeagatik soilik herritarrak ez du euskaltegirako bidea hartuko.

Honako-mahai inguru honetan, beraz, gizarte ekimeneko euskaltegietako ordezkariak euskarren beharra sustatzeari begira egindako hausnarketaren ondorioak partekatuko dituzte.



Aize Otaño Lizarralde
AEK



Joxerra Olano Etxabe
IKA

HELDUEN EUSKALDUNTZEA

INGURA Euskara online ikasteko ingurune digitala

Azaroak 11
ostirala

12:45
13:30

HABE helduen euskalduntzerako INGURA ingurune digitala sortzeko urratsak ematen hasi da 2022an. Ingurune honen bidez, online metodo bat eskainiko du HABEk, gailu elektronikoko ugaritatik euskara-ikasleak modu gidatuan nonahi eta noiznahi ikas dezan.

INGURA ikastaroak HEOCak zehaztutako ildo metodologikoak, egungo hizkuntza-teknologiak eta hizkuntzak ikasteko gamifikazio-estrategiak aintzat hartuta diseinatuko dira eta ezaugarri teknopedagogiko berritzaileak izango dituen INGURA ikas-ingurunean eskainiko dira, ikaslea bakarka, taldean eta eredu tutorizatuan euskara ikasten aritu ahal izateko.

INGURA egitasmoaren garapenak lan-lerro ugari eta planifikazio handia eskatuko du, bai definizio eta baita gauzatze uneetan. Horren jakitun, HABEren INGURA lantaldea, euskaltegiekin, autoikaskuntza-zentroekin eta beste hainbat erakunde eta aditurekin lankidetzan, urtebete daruma zereginak zehazten, urratsak ematen eta datozenak aurreikusten.

Orain arteko ibilbidea zertan izan den eta aurrera begira, epe motz nahiz luzean, HABEk zein helburu dituen azalduko dugu gure hitzaldian.



Eskarne Lopetegi Zalakain

**Metodologia eta edukien arloa
HABE**



